



sortu .info

Herri-Elkargo bakarraren sorrera Iparraldean

Herri-elkargo bakarraren indarrean jartzeak panorama politiko berria sortuko du Iparraldean. Iparraldea bere osotasunean erreferentziatzeko agertoki politikoa bilakatzeak urrats kualitatiboa suposatzen du aitor-tzaren bidean, baldintza politiko eta soziologiko berriak suposatzen ditu geroari begira.

2016ko Maiatza



Estatus bereziko lurralde kolektibitatea

Lehenik eta behin, oroitarazi behar da Aieteko Konferentziak sortu giroan, azken bi urteetan Iparraldeko eragile sozio-ekonomikoei eta sentsibiltateen espektro zabaleko arduradun politikoei kuadro instituzional bat zehaztu eta adostu zutela: estatus bereziko lurralde kolektibitatea. Kuadro honen definitzeak aintzin-pausu inportantea suposatzen du, Iparraldearen berezitasunari estatus politiko berezi baten bitartez erantzun behar zaiela aho batez adierazi baitzaio Pariseri. Estatu frantsesak Estatus bereziari ezetz erantzun dio. Ez da horregatik Iparraldeko estatus politiko bereziaren aldeko borroka bukatuko. Kontrakoa baizik: kuadro instituzional hori irabazteko eskas zitzaigun indarharremana epe ertain bateri begira artikulatzera goaz datozen urteetan.

Herri-elkargoa Iparraldeko herrien-elkarketa bat da. Berez, gaitasun gutti ekartzen ditu. Baina, aitortzaaren aldeko borrokan, Iparraldearen lurraldetasunaren ezagupen bat motzean irabazteak berebiziko garrantzia du aitortzaaren aldeko borrokan, eta nazio eraikuntza bidean ere, lurraldetasunak aldagai estrategikoa ordezkatzeko duelako. Hori ongi kokatzeko perspektiba bikoitza hartu behar da.

Lehenik eta behin, perspektiba historiko luzea. Iraultzaz geroztik, Iparraldea mapa politikitik ezabatua izan zen Departamenduaren sorrerarekin. Beraz, lehen aldiz 200 urteetan, Iparraldeko lurraldeak mapan agertuko dira berriz. Bestetik, hurbileko

Herri-elkargoa indarrean jartzeak panorama politiko berria sortuko du Iparraldean. Iparraldea bere osotasunean erreferentziazko agertoki politikoa bilakatzeak urrats kualitatiboa suposatzen du aitortza bidean.

perspektiba batean, gogorazi behar da Iparraldearen lurraldetasunaren kontrako erasoak etengabeak izan direla azkeneko urteetan. Negu honetan bertan, Ipar Lapurdiko hiri-gunea (Bidarte, Miarritze, Angelu, Baiona, Bokale) Hego-Landesetako Seignanx herri-elkargoarekin lotzeko eztabaida berpiztu da. Aldi berean, Estatu frantsesaren birzentralizazioaren aldeko erreformak azkartze bat ezagutu du azken urte eta erdian. Berezi, frantses eskualdeen eremua moldatua izan da dela urte bat. Orain, Ipar Euskal Herria 6 milioi biztanle dituen Aquitaine-Poitou-Charentes-Limousin makro-eskualdearen baitan kokatua da. Bere lurraldetasuna ezagutua izateko aukera hori hutseginez gero, makro-eskualde berrian, Iparraldea "ittoa" izateko sekulan baino arrisku handiagoak badaude.

Barne antolakuntzari begirako erronka Iparraldearentzat

Prozesu dinamiko gisa ulertuta, burujabetzaren aldeko borrokak ezinbestez hiru etapa igarotzea eskatzen du: autoafirmazioa, autoantolakuntza, autodeterminazioa. Iparraldeak autoafirmazioaren etapa itxi du azken urteetako dinamikarekin. Frantses Estatuak Ipar Euskal Herriko lurraldetasunaren lehen aitortza emateko pausua Herri-elkargo berrien sortze prozedura formalari baldintzatu du. Honek herritarren gehiengoa ordezkatzeko duen herrien (udalen) gehiengo bat eskatzen du. Bi baldintza hauekin frantses Estatuak bere aurpegia zuritu zezakeen. Alegia, ez balira betetzen horrek frogatuko luke bere ikuspuntutik aitortzaren aldarrikapena ez dela hain ongi sustraitua, Iparraldea ez dela bere autoantolakuntzaren pausoa emateko nahiko heldua.

Lurralde antolaketaren eta kohesioaren ikuspuntutik herri-elkargoak aitzin-pausu inportantea suposatzen du, hiri-gunea eta baserri eremuaren arteko osagarritasunak eraikitzea behartuko baitu.

Herriko etheen erabaki prozedurak maiztazaren bukaera arte iraun behar duelarik, bi gehiengoak jada gaindituak dira errez. Herri-elkargoaren proiektuaren aurkakoek ezezkoaren aldeko kanpaina bortitza eraman badute ere, Iparraldearen aitortzaren alde herriak erakusten duten jarrera oso trinkoa agertzen ari dira. Alde hortatik, auto-antolakuntzarako pausu hori oinarri politiko sendo batetik emanen da, eta horrek bere garrantzia du.

Jada ondoko urratsa aitzin-ikusten ahal dugu: herri-elkargoaren indarrean jartzearena. **Ofizialki Iparraldeko herri-elkargoa 2017ko urtarrilean sortuko da**, gisa hortan, gaur existitzen diren 10 elkargoak deseginez. Balizko errekurtsioaren aktualitateak erakusten duenez, aurkariek herri-elkargo bakarraren indarrean jartzeko fasea baldintzatu nahiko dute. Itsuski jarraitu nahi duten batailaren giblean funtsezko bi erronkak gordetzen dira. Lehen: aipatu bezala, Ipar Euskal Herriaren onarpena. Mota guzietako jakobinoak mobilizatuak daude, kosta ala kosta, Herri-Elkargoa indarrean jar ez dadin. Bigarrena: hiri-gunea eta baserri eremuaren arteko lehia. Alabaina, Herri-elkargoaren gobernantzan, barnekaldeko (Baxe Nafarroa+Xiberoa) herri ttikietako ordezkariak gehiengoa edukiko dute Herri-Elkargoaren batzar orokorrean, hiri handietakoak (bereziki, Bidarte, Miarritze, Angelu, Baiona, Bokale) minorian egongo dira. Horregatik ere, Baiona kenduta, Ipar Lapurdiko hiri handietako auzapezak herri-elkargoaren kontra daude, protagonismoa eta poderea galduko dutelako.

Herri-elkargoak gaitasun gutti edukiko ditu, baina Prefetak dionaren arabera Lurralde Kolektibitatearekin eskatzen ziren gaitasunen %80a barnebiltzen ditu. Hortara, herritarren eguneroko bizia begira garrantzia duten ondoko eremuetan politika publikoak erabakiko ditu: sustapen ekonomikoa, hirigintza, garraioak, ingurumena eta zaborrak, hizkuntz politika eta kultura, politika sozialak. Politika guzi horiek Iparraldeko eremua osoari begira diseinatu eta gauzatu beharko dira. Herri-elkargoaren gobernantza sistemarengatik, politika guzi horiek ezingo dira gauzatu Lapurdi kostaldeko hiriak eta barnekaldeko herri ttikien arteko adostasunik gabe. Lurralde antolaketaren eta kohesioaren ikuspuntutik herri-elkargoak aitzin-pausu inportantea suposatzen du, hiri-gunea eta baserri eremuaren arteko osagarritasunak eraikitzea behartuko baitu.

Herri Elkargoak ondoko eremuetan politika publikoak erabakiko ditu: sustapen ekonomikoa, hirigintza, garraioak, ingurumena eta zaborrak, hizkuntz politika eta kultura, politika sozialak.



Epe ertainerako: Estatus berria eta Euskal Herriko mapa European

Hasieran aipatu bezala, Herri-elkargoaren etapa, lurraldetasuna finkatu eta aitortzaren bidean indar-posizio hobeko batetik aitzina egiteko pausu bat bezala kontsideratu behar da. Iparraldeak ondoko etapa zehaztua badauka: Aietaren bihar-munetan sentsibilitateen adostasuna erdietsi zuen Lurralde Kolektibitatea (Estatus berezia alegia). Perspektiba honetatik, Herri-elkargoa indarrean jartzearen bataila ongi itxi ondoan, lehen kuadro honen topeak jotzea bilatu beharko da, Lurralde Kolektibitatea erreferentziazat hartuz. Ariketa honen erdian erabakitze eskubidea ardatz bezala kokatu daiteke, gogoratzuz 2010ean Baterak Lurralde Kolektibitatearen inguruko kontsulta baten alde 30.000 izenpetura baino gehiago bildu zituela.

Ariketa hau, frantses Estatuaren erreformaren urrats berrien baitan kokatu beharko da. Frantses antolaketa administratiboaren baitan lau maila aurkitzen dira: Estatua, eskualdeak, departamenduak eta herri-elkargoak. Martxan jarri den erreformaren ondorioz, eskualdeak handituak izan dira, eta herri-elkargoek ere, haien eremuak eta gaitasunen indartzearen eraginez, indar askoz handiagoa hartzen ari dira. Departamenduak aldiz, frantses antolaketa administratiboaren erreformatik oso ahulduak aterako dira. Mugimendu horiek direla eta, epe ertainean herri-elkargoen estatus aldaketa bat aitzin-ikusi daiteke. Izan ere, gaurko egunez, herri-elkargoetako ordezkariak herriko etxeek izendatzen dituzte. Ordezkarien izendatze molde hori eztabaidan dago, herri-elkargoek irabazten ari diren pisua eta erreferentzialtasun politikoa kontuan hartuz, herritarrek berek, hauteskunderen bitartez, herri-elkargoetako ordezkariak zuzenean izendatzeko aukerarik ez edukitzea ez baita normala.

Ipar Euskal Herriko lurraldetasunak lehen aitortza maila erdiesteak Euskal Herriko lurraldeen arteko loturak artikulatzeko, eta Euskal Bidean eta nazio eraikuntzan urrats berriak emateko aukera paregabea eskaintzen du.

ikuspegi demokratiko batetik. Haien ordezkariak zuzeneko hauteskunderen bitartez bozkatuak lituzketen momentutik, herri-elkargoen estatus juridikoa aldatuko litzateke, horiek lurralde kolektibitateak bilakatzuz.

Eta bukatzeko inportanteena: Ipar Euskal Herriko lurraldetasunak lehen aitortza maila erdiesteak Euskal Herriko lurraldeen arteko loturak artikulatzeko, eta Euskal Bidean eta nazio eraikuntzan urrats berriak emateko aukera paregabea eskaintzen du. Izan ere, Iparraldearen lehen ezagutza maila horrek, eta Nafarroan abertzaleek gobernua hartu izanak, hiru entitate administratiboen arabera banaketari begira panorama aldaketa deigarria eragiten dute. Aldaketa hau Europar Batasunaren eremu juridikoan (haiek deitzen dituzten "mugaz-gaundiko harremanen" esparruan alegia) Euskal Herri osoko mapa Europari begira proiektatzen hasteko baldintza berriak suposatzen ditu. Bestetik, Iparraldeko herri-elkargoak Euskal Herri osoko udalen artean harremanak sendotzeko posibilitateak indartzen ditu.